# EL NUEVO CONVENIO ESTATAL DE MARCAS DE RESTAURACIÓN, VA A EMPEORAR LAS CONDICIONES DE TRABAJO DE MILES DE PERSONAS

Aktibatu
Lortu
Zaindu

## ELA impugnará judicialmente este convenio y defenderá que se apliquen los convenios de hostelería de cada territorio

La publicación del primer convenio de Marcas de Restauración, confirma los peores augurios: estamos ante un nuevo convenio estatal que extenderá la precariedad laboral entre una parte importante de quienes trabajan en el sector de hostelería.

Concretamente este convenio se aplicará en las grandes cadenas de restauración, tanto si son las empresas principales, como si operan bajo esta marca en régimen de franquicia. (Burger King, MC Donald's, Vips, Foster´s Hollywood, Gino´s, KFC, Pans & Company, Goiko...).

Un convenio que como ya venimos denunciando desde el inicio, solo interesa a la patronal, y que no hubiese salido adelante sin la inexplicable complicidad de CCOO, UGT y Fetico. Bastaba simplemente haberse opuesto a negociar este convenio, como hizo ELA, para que la referencia en este sector ahora fuesen los diferentes convenios de hostelería.
Que no te engañen: ni este convenio era necesario (existen convenios de hostelería en todas las provincias), ni ningún trabajador va a mejorar sus condiciones de trabajo gracias a él.

En esta tabla comparativa se muestra claramente de qué estamos hablando:

| | SALARIO/MES | DIFERENCIA ANUAL | JORNADA ANUAL |
|---|---|---|---|
| Convenio estatal | 1078,57 x 14 pagas | 15099,98 | 1800 horas |
| Hostelería de Bizkaia | 1419,06 x 15 pagas | + 6489,02 euros | 1750 horas |
| Hostelería de Gipuzkoa | 1358 x 14 pagas (año 2010) | + 3912 euros | 1723 horas |
| Hostelería de Araba | 1417,31 x 14 pagas | + 4742,36 euros | 1746 horas |
| Hostelería de Navarra | 1471,09 | + 5495,28 euros | 1724 horas |

El convenio ha empezado a aplicarse ya, y seguramente que desde la empresa te están intentando tranquilizar diciéndote que no van a bajar tu salario actual. E inicialmente esto puede ser cierto, pero si estás cobrando por encima del nuevo convenio estatal también es verdad que dejará de subir en el futuro, porque se absorberá todo lo que esté por encima de las tablas salariales del convenio estatal. ¿Tener el mismo salario que hoy dentro de, por ejemplo, 5 años, con el IPC como está subiendo, de verdad crees que no te hace más pobre?

ELA va a impugnar judicialmente este convenio para tratar de que no se aplique. Y esperamos que los tribunales nos den la razón. Os iremos informando de ello.

Pero la mejor garantía de que en tu empresa las condiciones de trabajo no sean precarias es estar bien organizados sindicalmente, y tener el respaldo de un sindicato fuerte, que no se venda a las empresas, regalándoles convenios de mierda.

Frente a la precariedad que los sindicatos CCOO, UGT y Fetico nos ofrecen con su nuevo convenio estatal, en ELA estamos decididos a que quienes trabajan en el sector lo hagan en condiciones de trabajo dignas. Y por ello ELA es la mejor garantía en tu empresa.

**Ponte en contacto con ELA y organizaremos una reunión con vosotros y vosotras para analizar la situación que tenéis y buscar en conjunto la mejor alternativa.**

AQUÍ TRABAJAMOS, ¡AQUÍ NEGOCIAMOS!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# SUKALDARITZA MARKEN HITZARMEN ESTATAL BERRIAK MILAKA LANGILERENTZAT BALDINTZA OKERRAGOAK EKARRIKO DITU

Aktibatu
Lortu
Zaindu

**ELAk hitzarmen honen aurka auzitara joko du eta galdegingo du lurralde bakoitzeko ostalaritza hitzarmenak aplika daitezela**

Sukaldaritza Marken lehen hitzarmena argitaratu denean auguriorik okerrenak konfirmatu dira: estatu mailako hitzarmen berri honek prekaritatea hedatuko du ostalaritzan lan egiten duten askorentzat.

Zehazki, hitzarmena sukaldaritza kate handietan aplikatuko da, hala enpresa nagusietan, nola frankizia gisa lan egiten dutenetan (Burger King, MCDonald's, Vips, Foster's Hollywood, Ginos, KFC, Pans & Company, Goiko...).

Hitzarmen hau hasieratik salatu izan dugu; soilik patronalak zuen aurrera ateratzeko interesa, baina ez zatekeen gauzatuko CCOO, UGT eta Feticoren konplizitate ulergaitza izan ez balitz. Aski zen hitzarmena negoziatzeari uko egitea, ELAk egin zuen bezala, sektore honetako erreferentzia orain ostalaritzako hitzarmenak izan zitezen. Ez zaitzatela engainatu: hitzarmen hau ez zen beharrezkoa (probintzia guztietan daude ostalaritzako hitzarmenak), eta langile baten baldintzak ere ez dira hobetuko hari esker.

Taula honek adierazten du argi zertaz ari garen:

| | HILEKO SOLDATA | DIFERENTZIA URTEAN | URTEKO LANALDIA |
|---|---|---|---|
| Estatuko hitzarmena | 1.078,57 x 14 paga | 15099,98 | 1.800 ordu |
| Bizkaiko Ostalaritza | 1419,06 x 15 paga | + 6489,02 euro | 1.750 ordu |
| Gipuzkoako Ostalaritza | 1358 x 14 paga (2010 urtea) | + 3912 euro | 1.723 ordu |
| Arabako Ostalaritza | 1.417,31 x 14 paga | + 4742,36 euro | 1.746 ordu |
| Nafarroako Ostalaritza | 1.471,09 | + 5.495,28 euro | 1.724 ordu |

Hitzarmena dagoeneko aplikatzen hasi da, eta ziurrenik enpresa zu lasaitzen saiatuko da esanez egungo soldata ez dizula jaitsiko. Hori hasieran egia izan daiteke, baina baita ere aurrerago ez dela igoko estatuko hitzarmenetik gora irabazten baduzu, estatuko hitzarmeneko soldata-taulak gainditzen duen aldea xurgatu egingo delako. Benetan uste duzu ez zaituela pobretzen bost urte barru gaurko soldata izateak, noiz eta KPIa hainbeste igotzen ari den une honetan?

ELAk auzitara joko du hitzarmen honen aurka, aplika ez dadin saiatzeko. Eta espero dugu epaileek arrazoia ematea. Honen berri emango dizuegu.

Edonola ere, zure enpresan lan baldintza prekariorik egon ez dadin modurik onena da antolakuntza sindikal egokia eta sindikatu indartsu baten babesa izatea, bere burua salgai jartzen ez duena enpresei hitzarmen negargarriak eskainiz.

CCOO, UGT eta Fetico sindikatuek estatuko hitzarmen berriarekin dakarten prekaritatea ez dugu onartzen; ELAk nahi du sektore honetako jendeak lan-baldintza egokiak izatea. Horregatik, ELA da bermerik onena zure enpresan.

**Jar zaitez ELArekin harremanetan eta bilera bat antolatuko dugu zuekin, zein egoeratan zaudeten aztertzeko eta guztion artean alternatibarik hoberena zein den erabakitzeko.**

HEMEN LAN EGIN,

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

HEMEN NEGOZIATU!